

TOKI ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA

(2025eko apirila)

ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- **Interes-taldeen jardueren gardentasunari eta osotasunari buruzko lege-proiektua.**

Ganberako Mahaiak, 2025eko otsailaren 4an egindako bileran, Ogasun eta Funtzio Publikoaren Batzordeari agindu zion onar zezala lege-proiektu hori, legegintzako eskumen osoz eta Erregelamenduaren 148. artikuluari jarraikiz. Halaber, erabaki zuen Gorte Nagusien aldizkari ofizialean argitaratzea, eta zuzenketak egiteko hamabost egun balioduneko epea ezartzea.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-46-1.PDF#page=1

- **Lege-proiektua, erretiro-pentsioaren eta lanaren arteko bateragarritasuna hobetzeko (abenduaren 23ko 11/2024 Errege Lege Dekretutik dator).**

Espainiako Konstituzioaren 86.2 artikuluan xedatutakoa betez, Diputatuen Kongresuak ekainaren 26ko 11/2024 Errege Lege Dekretua (erretiro-pentsioaren eta lanaren arteko bateragarritasuna hobetzeko dago idatzia) eztabaidatu eta osorik bozkatu zuen 2025eko urtarrilaren 22ko bilkuran, eta baliozkotzea eta lege-proiektu gisa izapidetzea erabaki zuen.

Diputatuen Kongresuko Mahaiak erabaki du Lan, Gizarte Ekonomia, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Batzordeari bidaltzea, legegintzako eskumen osoarekin onar dezan, eta zortzi egun balioduneko epea irekitzea, 2025eko otsailaren 17ra arte, diputatuek eta parlamentu-taldeek zuzenketak aurkeztu ditzaten, nahi baldin badute. Lege-proiektu hori presako prozeduraren bidez izapidetuko da, ganberako erregelamenduko 151. artikuluko 4. apartatuko azken tartekiaren arabera.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-45-1.PDF#page=1

- Sektorre publikoko kontratuetan prezioak eguneratzeko lege-proposamena.

2025eko otsailaren 18an, SUMAR talde parlamentarioak Diputatuen Kongresuan lege-proposamen bat aurkeztu zuen, sektore publikoko kontratuetako prezioak eguneratzeko.

Erreforma-proposamenaren giltzarrietako bat SPKLren 100. artikulua aldatzea da, kontratuetako aurrekontuetan orain baino zehatzago jaso daitezkeen soldata-kostuak eta haien balizko bilakaera. Honela dio zioen azalpenean: (...) se introducen modificaciones en el artículo 100 para fijar un porcentaje a partir del cual resulta obligatorio para el órgano de contratación detallar en el presupuesto base de licitación los costes salariales de las personas empleadas para la ejecución del contrato».

Gainera, taldeak 103. artikulua aldatzea proposatzen du, ate bat zabaltzearen beste artikulua bat txertatzeko: SPKLeko 103.bis artikulua. Artikulu berri horretan, prozedura berezi bat erantsiko da, prezioak soldata-kosten bilakaeraren arabera eguneratzeko. Hala, kontratazio-organoak hasieran uste zuena baino gehiago igotzen badira soldadak, izango da mekanismo bat, kontratuen prezioak eguneratzeko. Honela dio testuak: «(...) recoge un procedimiento claro y detallado para permitir la actualización de los precios de los contratos públicos cuando se produzcan incrementos en los costes salariales que superen las previsiones iniciales efectuadas por el órgano de contratación al calcular el presupuesto base de licitación».

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/B/BOCG-15-B-181-1.PDF

Estatuko Administrazio Orokorra:

- Errege Dekretu bat egiteko proiektua, desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora nola iritsiko diren eta lanpostuak nola beteko dituzten arautzeko.

Arau honen bidez, egungo abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretua ordeztu egin nahi da, gaiaren erregulazioa arau berrietara egokitzeko, estatukoetara zein nazioartekoetara, bai eta arlo horretan izandako aurrerapen sozial eta teknologikoetara ere.

Aldaketa hori Desgaitasunari buruzko 2022-2030 Espainiako Estrategiaren neurrietako bat da. Gainera, enplegu publikoko politikak eguneratu egin behar dira desgaitasuna duten

pertsonentzat, neurri berriak bilduz, errazago gerta dakien beren gaitasun eta beharretara egokitutako lanpostuetara iristea eta haietan jarraitzea.

https://digital.gob.es/ministerio/participacion_proyectos/consulta_previa/proyectos/2024-12-03.html

BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- **1/2025 Jarraibidea, urtarrilaren 30ekoa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, tokiko ordezkaritza-karguak ordeztari buruzkoa. (2025eko otsailaren 5eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/05/pdfs/BOE-A-2025-2042.pdf>

- **2/2025 Jarraibidea, urtarrilaren 30ekoa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, apirilaren 28ko 6/2011 Jarraibidea aldatzen duena. 2012ko jarraibide hartan zegoen azalduta nola ulertu behar den Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 27.3 artikulua, adierazten duena zer eragozpen eta desenkusa justifikatu onartuko diren hauteskunde-mahaietako lehendakari- eta kide-karguetarako . (2025eko otsailaren 5eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/05/pdfs/BOE-A-2025-2043.pdf>

- **INFORMAZIO-OHARRA, JAKIN DADIN ZER ARAUBIDE JURIDIKO APLIKA DAITEKEEN TOKI-ERAKUNDEEK 2025EAN EGIN BEHAR DITUZTEN EPE LABUR ETA LUZEKO ZORPETZE-ERAGIKETETAN.**

<https://www.hacienda.gob.es/SGFAL/DGCFEL/Endeudamiento/NOTA-informativa-endeudamiento-EELL-ejercicio-2025.pdf>

- **Ebazpena, 2025eko otsailaren 13koa, Gizarte Eskubideen Estatu Idazkaritzarena. 2025eko urtarrilaren 31n, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak kontsentsu hau ezartzea erabaki zuen (hitzez hitz):**

«Arreta Goiztiarra Hobetzeko Estatu Adostasuna. Ibilbide-orria hedatzea: helburuak, neurriak eta kalitate-estandar orokorrak», eta, ebazpen honen bidez, erabaki hori argitara ematen da (2025eko otsailaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/25/pdfs/BOE-A-2025-3770.pdf>

- **FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN GIZA BALIABIDEEN ARLOKO KONTSULTEN BULETINA Egonkortze-prozesuen epeak.**

Galdetu zaigu ea egonkortze-prozesuetan nola aplikatu behar diren behin-behinekotasuna



murritzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021

Legian aurreikusten diren legezko epeak. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan, lege horrek Espainiari epe batzuk ematen dizkio Europar Batasunarekikoak betetzeko.

https://funcionpublica.digital.gob.es/dam/es/portalsefp/funcion-publica/rj-pdp/regimen-juridico/bodeco/1/Bodeco_2024_1_2_estabilizacion.pdf#page=1

Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- ***El nuevo régimen de colaboración público-privada en la gestión de funciones urbanísticas de la Comunidad de Madrid***, Cayetano Prieto Romero (Acento Local blogean argitaratua, 2025eko otsailaren 12an).

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-nuevo-regimen-de-colaboracion-publico-privada-en-la-gestion-de-funciones-urbanisticas-de-la-comunidad-de-madrid/>

- ***Próxima generación de responsabilidad contable en el sector local***, Roberto Fernández Llera (Acento Local blogean argitaratua, 2025eko urtarrilaren 29an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/proxima-generacion-de-responsabilidad-contable-en-el-sector-local/>

- ***Banderas arcoíris no ofenden***, José M. Sánchez Tomás (Acento Local blogean argitaratua, 2025eko otsailaren 19an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/banderas-arcoiris-no-ofenden/>

- ***El ejercicio de potestades administrativas de modo automatizado con inteligencia artificial: la reserva de funciones administrativas a humanos, con especial referencia al ámbito local***, Juli Ponce Solé (Acento Local blogean argitaratua, 2025eko martxoaren 12an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-ejercicio-de-potestades-administrativas-de-modo-automatizado-con-inteligencia-artificial-la-reserva-de-funciones-administrativas-a-humanos-con-especial-referencia-al-ambito-local/>

- ***Una reflexión regulatoria y financiera sobre las comunidades energéticas, fuente de innovación y sostenibilidad para la vida local***, Ignacio Zamora Santa Brígida (Acento Local blogean argitaratua, 2025eko otsailaren 26an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/una-reflexion-regulatoria-y-financiera-sobre-las-comunidades-energeticas-fuente-de-innovacion-y-sostenibilidad-para-la-vida-local/>

- ***Como acabar de una vez por todas con el silencio administrativo***, José Ramón Chaves García (egile horren “delajusticia” blogean argitaratua, 2025eko martxoaren 3an)

<https://delajusticia.com/2025/03/03/como-acabar-de-una-vez-por-todas-con-el-silencio-administrativo/>

- ***Reglamento de inteligencia artificial, buena administración y control judicial: un nudo gordiano*** (egile horren “delajusticia” blogean argitaratua, 2025eko otsailaren 20an)

<https://delajusticia.com/2025/02/20/reglamento-de-inteligencia-artificial-buena-administracion-y-control-judicial-un-nudo-gordiano/>

- ***Las potestades son para ejercerlas, no para pervertirlas*** (egile horren “delajusticia” blogean argitaratua, 2025eko martxoaren 3an)

<https://delajusticia.com/2025/03/05/las-potestades-son-para-ejercerlas-no-para-pervertirlas/>

Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- ***La implementación de la metodología BIM en la Contratación Pública***, Jose María Gimeno Feliu (ObCP blogean argitaratua, 2025eko martxoaren 18an)

<https://www.obcp.es/opiniones/la-implementacion-de-la-metodologia-bim-en-la-contratacion-publica>

- ***Hacia el buen gobierno desde la contratación pública***, Jose María Gimeno Feliu (ObCP blogean argitaratua, 2024ko abenduaren 12an)

<https://www.obcp.es/opiniones/hacia-el-buen-gobierno-desde-la-contratacion-publica>

- ***Régimen jurídico aplicable a los contratos para la prestación del servicio público de transporte regular de viajeros. Comentario de la STJUE de 13 de febrero de 2025 (asunto C-684/23), Francisco Lorenzo Hernández González (ObCP blogean argitaratua, 2025eko martxoaren 3an)***

<https://www.obcp.es/opiniones/regimen-juridico-aplicable-los-contratos-para-la-prestacion-del-servicio-publico-de>

- ***¿Conviene modificar la regulación sobre la revisión de precios en los contratos públicos?, Maria Pilar Batet (egile horren “La parte contratante” blogean argitaratua, 2025eko otsailaren 25ean)***

<https://lapartecontratante.blog/2025/02/25/conviene-modificar-la-regulacion-sobre-la-revision-de-precios-en-los-contratos-publicos-por-m-p-batet/>

- ***Las ofertas anormales a la luz de la doctrina y de la jurisprudencia, Maria Pilar Batet (egile horren “La parte contratante” blogean argitaratua, 2025eko urtarrilaren 7an).***

<https://lapartecontratante.blog/2025/01/07/las-ofertas-anormales-a-la-luz-de-la-doctrina-y-de-la-jurisprudencia-por-m-p-batet/>

JURISPRUDENTZIA

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Organoa

- **MEMORIA HAU IDATZI DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK.**

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/informacion/kpecpe_oarc_memorias_documento/es_def/adjuntos/Memoria-2023-CAS.pdf

- **ZER DOKTRINA EMAN DUEN EAE-KO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK, SPKL 2018-2023.**

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/informacion/kpecpe_oarc_memorias_documento/es_def/adjuntos/Doctrina-2018-2023-con-enlace-a-resoluciones.pdf

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusia

- 157/2025 Ebazpena, 2025eko otsailaren 7koa. Zerbitzu-kontratu batean, errekurtsoa aurkeztu zuten izapide-egintzen aurka, prozedurako eskaintzak baloratzeko txostenaren aurka eta eskaintza baztertzeko proposamenaren aurka; SPKL. Ez zen onartu. Kualifikaziorik gabeko izapide-egintzen aurkako errekurtsoa. Administrazioa ez diren botere esleitzzaileen laguntza-organoek ez dute ezer baztertzeko ahalmenik.

Hauek dira pronuntziamenduan ikus daitezkeen hausnarketa eta ondorio nagusiak:

1. Administrazio publikoak ez diren botere esleitzzaileak (APEBE) ez daude behartuta kontratazio-mahaia edukitzera, SPKLren 326. artikulua administrazio publikoei baino ez baitzaie aplikatzen.
2. APEBE batek laguntza-organo bat sortzen badu, hark ez ditu "ohiko" kontratazio-mahai baten eskumenak berehala eta besterik gabe inguratuko.
3. APEBE baten laguntza-organoak eskaintzarik baztertu nahi badu, baldintza-agiriekin berariaz horretarako aukera eman behar dute, bestela ezin du.

[https://www.hacienda.gob.es/TACRC/Resoluciones/Año 2025/Recurso 1713-2024 \(Res 157\) 07-02-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/TACRC/Resoluciones/Año 2025/Recurso 1713-2024 (Res 157) 07-02-2025.pdf)

JURISPRUDENTZIA

Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea

- 2024ko kontratazio publikoaren arriskuen mapa.

OIREscon Bulegoak esleituta dituen gainbegiratze-eskumenetan oinarrituta eta SPKLren 332.9 artikuluekin bat etorritik, arriskuen mapa bat egin da, helburu hauekin: a) Gainbegiratze-funtzioa betetzeaz batera, kontratazio publikoaren prozesuan ahulezia batzuk agertu dira, eta hobeto lotu behar dira. b) Administrazio publikoek gainbegiraketa egiteko erabiltzen dituzten irizpideak eta metodologiak koordinatzen laguntzea, eta tartean diren eragile guztien gainbegiratze-zereginak ondo bideratzen laguntzea. c) Ikustea OIREscon erakundeak zer proposamen egin dituen kontratazio publikorako zuzentarauak ebaluatzeko prozesurako.

<https://www.hacienda.gob.es/RSC/OIREscon/mapa-riesgos/mapa-riesgos-2024.pdf>

- Kontratazio publikorako zuzentzarauak ebaluatzeke prozesurako proposamenak.

2024ko abenduaren 13an abiarazita, Europako Batzordea kontsulta bat egiten ari da kontratazio publikoaren arloko zuzentzari europarren ebaluazioari buruz. Bada, kontsulta horren itzalpean, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek (OIReScon) «Kontratazio publikoko zuzentzarauak ebaluatzeke prozesurako proposamenak» dokumentua argitaratu du.

<https://www.hacienda.gob.es/RSC/OIReScon/estudios-guias-protocolos/evaluacion-directivas.pdf>

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa

- DBEBren 2024ko urriaren 4ko ebazpena. Zehapen hau eman zuten, pertsona bat WhatsApp talde batean baimenik gabe sartzeagatik.

Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazio bat aurkeztu zen, beste 150 lagunekin batera WhatsApp talde batean sartu zutelako. Enpresak, talde hori, jakinarazpenak bidaltzeko baliatzen zuen.

Erreklamatzailerak adierazi duenez, enpresa horrekin alde aurretik izan zuen harremanik, bai, baina ez zuen inola ere baimenik eman komunikazio horiek bidal diezazkieten, ezta berehalako mezularitza-talde bateko kide izateko ere.

Kontaktu jakin batzuk mezularitza-talde batean sartze hori datu pertsonalen tratamendutzat jo daiteke, betetzen ditu legeak horretarako ezartzen dituen ezaugarriak (DBEO, 4. art.).

Berehalako mezularitza-aplikazio horretan (WhatsApp), partaideen baimenik gabe ere sor daitezke partaide-taldeak, eta, barruan daudelarik, beste guztien telefono-zenbakiak ikus ditzakete, eta ezizenak, eta profileko argazkiak. Datu horiek guztiak datu pertsonaltzat hartzen dira.

Erreklamatzailerak ekarri duen dokumentazioak erakusten du tratamendua ez zela zilegi izan. Esate baterako, talde barruko elkarriketa batzuen kopia bat ekarri du, eta hor ez da inon ageri erreklamatzailerak inolako baimenik eman zuenik, ez berak ez beste partaideek ere; eta haiek ere adierazten dute harrituta daudela taldean sartu dituztelako, zergatik asmatu ezinik.

DBEOko 6.1 artikulua urratzen du. Zehapenaren maila zehazteko orduan, kontuan izan behar da badela gorabehera bat kasua hau larriagotu egiten duena, alegia, irismena (DBEO, 83.2 art.); izan ere,

okerreko tratamendu horren ondorioz, Whatsapp taldeko beste partaide batzuek behintzat izan dute irispidea erreklamatzailaren datu pertsonaletara, eta, horregatik, okerkeria larriagoa da.

<https://www.aepd.es/documento/ps-00298-2023.pdf>

- DBEAren 2024ko abuztuaren 22ko ebazpena. Datuen babesa urratzea, larrialdi-plan batean telefono-zenbaki partikularrak sartzeagatik.

Udaltzaingoen sindikatu batek erreklamazioa aurkeztu zuen, jakin zutelako agente batzuen telefono-zenbaki partikularrak udalerri bateko larrialdi-planean jasota zeudela.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak adierazten du ez dela zilegi agentearen telefono mugikor partikularra tratatzea zergatik eta beharrezkoa delako tratamenduaren arduradunari eska dakioken legezko obligazio bat betetzeko eta interes publikoaren alde eginiko misio bat burutzeko; izan ere, arau bakar batean ere ez dago halakorik jasota, eta interes publikoak ez du halakorik eskatzen.

Nahiz eta telefona komunikazio-kanal beharrezkotzat jotzen den egoera jakin batzuetan, araudi aplikagarrian ezarritako koordinazio-printzipioaren arabera, ez da inon ere agertzen eta jasotzen telefono-datua agentearen telefono mugikorraren zenbakia izan behar dela.

Telefono mugikorraren zenbakia agentearen beste datu pertsonal bat da, eta gainerako datu pertsonalen konfidentzialtasun berarekin tratatu behar da.

Hala ere, bai udalak bai enpresa zerbitzu emaileak ezabatu dituzte datu horiek larrialdi-planetik, eta ez dago zertan hori lortzeko neurririk hartu behar.

<https://www.aepd.es/documento/ps-00374-2023.pdf>

- DBEAren 2024ko azaroaren 11ko ebazpena. DBEO urratu egin da, kontrol-agintaritzei informazioa eskatzeko ahalmena ematen dielako, eta informazio hori ez ematea arau-hauste gisa tipifikatzen duelako.

Partikular batek erreklamazioa aurkeztu zuen udal baten aurka, datuen babesaren arloko ustezko arau-hauste batengatik. Hori dela eta, Datuak Babesteko Estatuko Agentziak (DBEA) udalari jakinarazi zion dagokion prozedurari hasiera eman zitzaiola, eta eskatu zion bidaltzeko adierazitako informazioa.

Udalak ez zion jaramonik egin informazio-eskariari, eta, beraz, Agentziak haren aurkako zehapen-prozedura hastea erabaki zuen.

Prozeduraren hasiera jakinarazi ondoren, eta alegazioak egiteko emandako epea igaro ondoren, Agentziak egiaztatu du ez duela udalaren alegaziorik edo dokumentaziorik batere jaso.

Kontrol-agintariak badute ahalmena agintzeko, tratamendu-arduradunari eta -eragileari eta, beharrezkoa bada, arduradunaren edo eragilearen ordezkariari, bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio guztia eman diezaioten (DBEO, 58.1 art). Udalak, horrela, oztopatu egin du kontrol-agintaritzei ematen zaien ikerketa-ahala, kasu honetan DBEAri, eta, beraz, deskribatutako egitateak arau-haustetzat jotzen dira (DBEOren 83.5.e).

<https://www.aepd.es/documento/ps-00428-2024.pdf>

Europako Kontuen Auzitegia

- 9/2025 txosten berezia. Gaia: zer sistemak dauzkagun, bermatzeko Europako Suspertze eta Erresilientzia Funttsaren gastua eta kontratazio publikoari eta estatu-laguntzei buruzko arauak bat datozela.

Txosten horretan azaltzen denez, Europako Batzordea oraindik ez dago ziur EBko herrialdeek sistema eraginkorrik ote daukaten Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) bermatzeko, eta kontratazio publikoari eta estatu-laguntzei buruzko arauak bete daitezen.

Txosten horrek argitzen duenez, nahiz eta arauak sistema bat baino gehiago ahalbidetzen duten SEMa kontrolatzeko, ikuskatzaileek egiaztatu zuten ikuskatutako herrialde gehienek bazituztela gabezia batzuk kontratazio publikoa eta estatu-laguntzak betetzen zirela egiaztatzeko orduan.

Ikuskatzaileen arabera, neurri batean, arauak oso argiak ez direlako gertatzen da hori, EBko herrialdeei ez zietelako jarraibide zehatzik eman jakiteko nola egiaztatu behar dituzten EBk gai horietaz dituen arauak (kontratazio publikoa eta estatu-laguntzak). Gainera, ikuskatzaileek nabarmentzen dute badaudela gabezia batzuk EBko herrialdeek hartutako neurri akats-zuzentzaileetan ere, eta zaila da horrela inor arrastoan sartzea.

Era berean, ikuskatzaileek aitortzen dute ezen, diseinatuta dauden bezala, EBren berreskuratze-funttsak ordaintzekotan, baldintza modura, jomugak eta helburuak benetan bete behar direla. Baina ohartarazten dute, praktikan, SEMaren ordainketak osorik egin daitezkeela, baita kontratazio publikoari edo estatu-laguntzei buruzko arauak urratu

badira ere. Are gehiago, EBko herrialde batzuk ez dira saiatzen bidegabe gastatutako funtsak berreskuratzen, eta, berreskuratzen dituztenean, funtsak ez dira itzultzen EBren aurrekontura.

https://www.eca.europa.eu/ECAPublications/SR-2025-09/SR-2025-09_EN.pdf

Kontuen Auzitegia

- Ebazpena, 2024ko urriaren 22koa, Kontu Auzitegiarekiko Harremanetarako Batzorde Mistoak onartua; gaia: 2022ko ekitaldian udal-taldeei esleitutako zuzkidura ekonomikoak direla-eta probintziako hiriburu diren udalerriek egindako jarduketaren fiskalizazio-txostena. (2024ko abenduaren 27ko BOE)

Kontuen Auzitegiak, amaitzeko, gomendio batzuk ematen ditu, tokiko araubidea aldatzeko gomendio orokorraz gain: horietako bi, gobernuari buruzkoak dira; eta bost, udalei buruzkoak. Gobernuari buruzkoei dagokienez, txostenak gomendatzen du, alde batetik, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean zehazturik uztea udalek gehienez ere zenbat diru jar dezaketen tokiko talde politikoen esku, eta, bestetik, gardentasun-araudian txertaturik uztea talde politikoei buruzko informazioa argitaratzeko betebeharra.

Toki-erakundeei buruzkoei dagokienez, Auzitegiak gomendatzen du puntu hauek denak ere jaso behar dituztela beren barne-araudian:

1. Ematen diren zenbatekoen mugak, eta gastuen justifikazioa eskatzea.
2. Kontuak Osoko Bilkurari emateko betebeharra, baina sistematikoki, berariaz eskatu beharrik gabe, bai eta Kontu-hartzailetzaren finantza-kontrolaren mende jartzeko betebeharra ere.
3. Talde politikoei eskatu behar zaie bakoitzak bere IFZ eta banku-kontua eduki behar duela derrigor, talde bakoitzak berea bere izenean, ez du balio alderdi politikoarenak.
4. Aplikatu gabeko edo justifikatu gabeko zuzkidurak itzultzeko betebeharrak egunean eduki behar dira, hurrengoak ordaindu baino lehen.
5. Osoko Bilkuraren kontrol-jarduketak, esleitutako zuzkidurak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko.

Hortaz, agerian geratzen da udal-taldeei esleitutako zuzkidurei buruzko erregulazioa ez dela nahikoa, eta udalek gabezia horiek konpondu behar dituztela, barne-araudia baliatuz;

edo arau-hutsune horren ondorioak onartu beharko dituzte, baina udalerriarentzat kaltegarria izango da argi eta garbi, bai ikuspuntu ekonomikotik, bai politikotik.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/12/27/pdfs/BOE-A-2024-27232.pdf>

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Europako araudia

- **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2025/40/EE ERREGELAMENDUA, ONTZIEI ETA**
ETA ONTZI-HONDAKINEI BURUZKOA, 2019/1020 (EB) Erregelamendua eta 2019/904 (EB) Zuzentaraua aldatzen dituen, eta 94/62/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. (2025eko urtarrilaren 22ko EBAO)

https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:L_202500040

JURISPRUDENTZIA

Estatuko legeria

- **1/2025 Lege Organikoa, urtarrilaren 2koa, Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren Arloko Neurriena. (2025eko urtarrilaren 3ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/03/pdfs/BOE-A-2025-76.pdf>

- **Akatsen zuzenketa: 1/2025 Lege Organikoa, urtarrilaren 2koa, Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren Arloko Neurriena. (2025eko urtarrilaren 11ko BOE)+**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/11/pdfs/BOE-A-2025-461.pdf>

- **10/1996 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala 2025 onartzen duena (CNAE-2025). (2025eko urtarrilaren 15eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/15/pdfs/BOE-A-2025-587.pdf>

- **ECM/3/2025 Agindua, urtarrilaren 14koa, 2025ean eta 2026ko urtarrilean Estatuaren zorra sortzea xedatzen duena. (2025eko urtarrilaren 15eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/15/pdfs/BOE-A-2025-588.pdf>

- **Akatsen zuzenketa: 9/2024 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Ekonomiaren, zergen, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloetan presako neurriak hartzen dituen, eta**

gizarte-kalteberatasuneko egoerei aurre egiteko neurri jakin batzuk luzatzen dituen
(2025eko urtarrilaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/22/pdfs/BOE-A-2025-994.pdf>

- **35/2025 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, pentsio publikoen hasierako zenbatekoa mugatzeari buruzkoa eta Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen, Estatuko Klase Pasiboen pentsioen eta beste gizarte-prestazio publiko batzuen balioa handitzeari buruzkoa 2025erako (2025eko urtarrilaren 22ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/22/pdfs/BOE-A-2025-999.pdf>

- **Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau indargabetzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 9/2024 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez larrialdi-neurriak hartzen baitira ekonomiaren, zergen, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloan, eta beste neurri batzuen iraupena luzatu egiten baita, gizarte-zaugarritasuneko egoerei aurre egiteko (2025eko urtarrilaren 23ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/23/pdfs/BOE-A-2025-1136.pdf>

- **Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau indargabetzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 10/2024 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, aldi batean energia-karga bat ezartzen duena 2025erako (2025eko urtarrilaren 23ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/23/pdfs/BOE-A-2025-1137.pdf>

- **Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 11/2024 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, erretiro-pentsioen eta lanaren arteko bateragarritasuna hobetzeko (2025eko urtarrilaren 23ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/23/pdfs/BOE-A-2025-1138.pdf>

- **Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 16koa, Administrazioaren Kontu Hartzailatza Nagusiarena, bi gauza hauek egiten dituen: Estatuko Administrazio Institutuzionalerako Kontabilitate Jarraibidearen aplikazio-eremuan dauden erakundeentzat, justifikatu beharreko ordainketen kontabilitate-tratamendua arautu (jarraibide hori uztailaren 14ko EHA/2045/2011 Aginduaren bidez onartu zen); eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra Estatuko Administrazio Orokorreara egokitzea onartzen duen 2011ko azaroaren 17ko Ebazpena aldatu (2025eko urtarrilaren 25eko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/25/pdfs/BOE-A-2025-1327.pdf>

- Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 20koa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, 2025. urtean zirkulazioa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko (2025eko urtarrilaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/25/pdfs/BOE-A-2025-1329.pdf>

- 1/2025 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 28koa, zeinaz presako neurriak onartzen baitira ekonomiaren, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloetan, eta kalteberatasun-egoerei aurre egitekoak. (2025eko urtarrilaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/29/pdfs/BOE-A-2025-1560.pdf>

- Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, ebazpen honen 1. eranskina eguneratzen duena: Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, Autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa zaien finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen duena. (2025eko otsailaren 8ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/08/pdfs/BOE-A-2025-2372.pdf>

- 87/2025 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, 2025erako lanbidearteko gutxieneko soldata finkatzen duena. (2025eko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/12/pdfs/BOE-A-2025-2576.pdf>

- Ebazpena, 2025eko otsailaren 10ekoa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, 2025. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen Ebazpenean atzemandako hutsak zuzentzen dituen (2025eko urtarrilaren 20ko Ebazpenean) (2025eko otsailaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/14/pdfs/BOE-A-2025-2784.pdf>

- Diputatuen Kongresuko 2025eko otsailaren 12ko Ebazpena, agintzen duena argitara dadila urtarrilaren 28ko 1/2025 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko erabakia, zeinaz presako neurriak onartzen baitira ekonomiaren, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloetan, eta kalteberatasun-egoerei aurre egiteko. (2025eko otsailaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/15/pdfs/BOE-A-2025-2867.pdf>

- 91/2025 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, energiaren, klima-aldaketaren eta haizearen kalitatearen arloko gobernantza-mekanismoa ezartzen duena. (2025eko otsailaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/22/pdfs/BOE-A-2025-3560.pdf>

- **PJC/178/2025** Agindua, otsailaren 25ekoa, zeinaren bidez garatzen baitira 2025eko legezko arauak Gizarte Segurantzako kotizaziorako, langabeziarako, jarduera uzteagatiko babeserako, Soldatak Bermatzeko Funtserako eta Lanbide Heziketarako. (2025eko otsailaren 26ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/26/pdfs/BOE-A-2025-3780.pdf>

- **SND/196/2025** Agindua, otsailaren 25ekoa, Kontratazio Batzordea eta Kontratazio Mahai Bakarra sortzen dituen eta haien osaera eta eginkizunak arautzen dituen. (2025eko martxoaren 3ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/03/pdfs/BOE-A-2025-4168.pdf>

- **104/2025** Errege Dekretua, otsailaren 18koa, Musikako ikasketa profesionaletan Trikitixa espezialitatea sortzen duena eta espezialitate horren curriculumaren oinarritzko alderdiak ezartzen dituen. (2025eko martxoaren 6ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/06/pdfs/BOE-A-2025-4409.pdf>

- **AUC/213/2025** Agindua, otsailaren 26koa, arautzen duena sinadura elektronikoa nola erabili behar den zinpeko itzultzaile-interpreteten, zinpeko itzultzaileen eta zinpeko interpreteten jarduerak egiaztatzeko. (2025eko martxoaren 7ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/07/pdfs/BOE-A-2025-4519.pdf>

JURISPRUDENTZIA

Euskal Autonomia Erkidegoa

- **8/2024 LEGEA**, abenduaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen. (2025eko abenduaren 30eko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/12/2405980a.pdf>

- **475/2024 DEKRETUA**, abenduaren 17koa, Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroa arautzen duena. (2025eko urtarrilaren 2ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/01/2500001a.pdf>

- **494/2024 DEKRETUA**, abenduaren 23koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena. (2025eko urtarrilaren 10eko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/01/2500111a.pdf>

- **6/2024 LEGEA**, abenduaren 19koa, Colegio Oficial de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Bilbao Elkargo Ofiziala desagiten duena. (2025eko urtarrilaren 14ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/01/2500171a.pdf>

- **7/2024 LEGEA**, abenduaren 19koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 11/1919 Legea aldatzekoa. (2025eko urtarrilaren 14ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/01/2500172a.pdf>

- **HUTS-ZUZENKETA**, honako lege honena: 8/2024 Legea, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituena. (2025eko otsailaren 3ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/02/2500515a.pdf>

- **37/2025 DEKRETUA**, otsailaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen Dekretua. (2025eko otsailaren 21eko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/02/2500838a.pdf>

- **EBAZPENA**, 2025eko otsailaren 17koa, Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakariarena, auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko udal batek aurkeztutako 2025. urterako tarifak onartzekoa. (2025eko otsailaren 27ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/02/2500926a.pdf>

- **42/2025 DEKRETUA**, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko Dekretua hirugarrenez aldatzen duena. (2025eko otsailaren 28ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/02/2500953a.pdf>

45/2025 DEKRETUA, otsailaren 18koa, Hirigintzako estandarrak arautzeko. (2025eko martxoaren 6ko EHAA).

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/03/2501050a.pdf>

- **48/2025 DEKRETUA**, otsailaren 25koa, Uraren Kanonaren Erregelamendua aldatzen duena. (2025eko martxoaren 11ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/03/2501123a.pdf>

- 50/2025 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak. (2025eko martxoaren 11ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/03/2501124a.pdf>

JURISPRUDENTZIA

Arabako Lurralde Historikoa

- 18/2024 Foru Araua, abenduaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2025erako aurrekontua gauzatzeari buruzkoa. (2024ko abenduaren 30eko 22ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/147/2024_147_04145_C.pdf

- 1/2025 Foru Araua, urtarrilaren 15ekoa, 3/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 27koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko zerga osagarri baten aplikazioa, talde multinazionaleri eta talde nazional handiei gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko. (2025eko urtarrilaren 31ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2025/012/2025_012_00241_C.pdf

- 2/2025 Foru Araua, urtarrilaren 15ekoa, Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua aldatzeko. (2025eko urtarrilaren 31ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2025/012/2025_012_00242_C.pdf

- 3/2025 Foru Dekretua, otsailaren 4koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundian hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei. (2025eko otsailaren 12ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2025/017/2025_017_00372_C.pdf

- 124/2025 Erabakia, martxoaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean Arabako toki erakundeek izango duten partaidetzen banaketa, 2024ko likidazioari dagokiona. (2025eko martxoaren 12ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2025/029/2025_029_00704_C.pdf

Bizkaiko Lurralde Historikoa

- **2/2024 FORU ARAUA**, urriaren 23koa, Bizkaiko Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Plan Integrala (BHIP 2030) onartzen duena. Plan horrek Ingurumen Adierazpen Estrategikoa osatzen du. (2024ko abenduaren 9ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/12/09/I-1179_cas.pdf

- **4/2024 FORU ARAUA**, abenduaren 27koa, zeinaren bidez tributu-neurriak onartzen baitira. (2024ko abenduaren 30eko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/12/30/I-1349_cas.pdf

- **3/2024 FORU ARAUA**, abenduaren 27koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025eko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2024ko abenduaren 30eko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/12/30/I-1167_cas.pdf

- **Abenduaren 27ko 4/2024 Foru Araua**, tributu-neurriak onartzen dituenari buruzkoaren promulgazioaren akatsen zuzenketa. (2025eko urtarrilaren 13ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2025/01/13/I-36_cas.pdf

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- **4/2024 Foru Araua**, abenduaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025. urterako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen. (2024ko abenduaren 26a)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/12/26/c2409500.pdf>

- **Ebazpena**, 2025eko urtarrilaren 8koa, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: **1/2024 Foru Dekretu-Araua**, abenduaren 17koa, 2024 urterako zenbait zerga neurri onesten dituen. (2025eko urtarrilaren 27ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/01/27/c2500187.pdf>

- **Ebazpena**, 2025eko otsailaren 5koa, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: **2/2024 Foru Dekretu-Araua**, abenduaren 27koa, abenduaren 15eko Kontseiluaren 2022/253 (EB) Zuzentarauaren transposizioa tributuen ordenamendu juridikoan sartzea onesten duena. Zuzentaru hori Batasuneko enpresa multinazionalen taldeentzako eta magnitude handiko talde nazionalentzako gutxieneko ezarpen-maila bermatzeari buruzkoa da. (2025eko otsailaren 13ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/02/13/c2501131.pdf>

- **91/2025 Foru Agindua, martxoaren 10ekoa, 2024ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga autolikidatzeko erabiliko diren ereduak onetsi, eta horiek aurkezteko eta diru-sarrera egiteko modu, epe eta tokiak ezartzen dituen.** (2025eko martxoaren 14ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/03/14/c2501949.pdf>

Nafarroako Foru Komunitatea

- **19/2024 Foru Legea, abenduaren 26koa, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.** (2025eko urtarrilaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/17/pdfs/BOE-A-2025-718.pdf>

- **20/2024 Foru Legea, abenduaren 26koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.** (2025eko urtarrilaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/17/pdfs/BOE-A-2025-719.pdf>

- **166E/2025 Ebazpena, urtarrilaren 9koa, Herrizaingo, Funtzio Publiko eta Justizia Saileko Trafiko Zerbitzuarena, Nafarroako Foru Komunitatean 2025ean trafikoa arautzeko neurri berezi batzuk ezartzen dituen.** (2025eko urtarrilaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/20/pdfs/BOE-A-2025-881.pdf>

- **Akats batzuk zuzentzea abenduaren 26ko 19/2024 Foru Legean, 2025eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoan.** (2025eko otsailaren 7ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/07/pdfs/BOE-A-2025-2292.pdf>

- **1/2025 Foru Legea, urtarrilaren 30ekoa, Nafarroako 2023ko Kontu Orokorrei buruzkoa.** (2025eko otsailaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/20/pdfs/BOE-A-2025-3301.pdf>

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGERIA

Aragoiko Autonomia Erkidegoa

- **5/2024 Legea**, abenduaren 19koa, Aragoi energia-komunitateak eta industria-autokontsumoa sustatzeko neurriena (2025eko urtarrilaren 27ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/27/pdfs/BOE-A-2025-1392.pdf>

Asturiasko Autonomia Erkidegoa

- **8/2024 Legea**, abenduaren 27koa, 2025eko Aurrekontu Orokorrena (2025eko otsailaren 18ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/18/pdfs/BOE-A-2025-3124.pdf>

- **1/2025 Legea**, otsailaren 19koa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzkoa (2025eko martxoaren 13ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/13/pdfs/BOE-A-2025-4911.pdf>

Kanarietako Autonomia Erkidegoa

- **5/2024 Legea**, abenduaren 26koa, Kanarietako Autonomia Erkidegoaren 2025erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (2025eko martxoaren 13ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/13/pdfs/BOE-A-2025-4913.pdf>

Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa

- **4/2024 Legea**, uztailaren 19koa, Gaztela-Mantxako Osotasun Publikoari buruzkoa (2025eko martxoaren 3ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/03/pdfs/BOE-A-2025-4169.pdf>

- 5/2024 Legea, irailaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita otsailaren 18ko 2/2022 Legea, Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoko Urena (2025eko martxoaren 3ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/03/pdfs/BOE-A-2025-4170.pdf>

Kataluniako Autonomia Erkidegoa

- Urtarrilaren 8ko 1/2025 Legea, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Funtzari buruzkoa (2025eko urtarrilaren 17ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/17/pdfs/BOE-A-2025-715.pdf>

- 11/2024 Lege Dekretua, abenduaren 17koa, aurrekontua luzatuta daukan sektore publikoaren finantza-beharrena, Kataluniako nahikotasun-errentaren adierazlea handitzearena eta gizarte-prestazioen arloko neurriena (2025eko otsailaren 13ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/13/pdfs/BOE-A-2025-2684.pdf>

- 12/2024 Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Kataluniako uren arloko legediaren testu bategineko 29 bis artikulua aldatzeari buruzkoa; testu bategin hori azaroaren 4ko 3/2003 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen (2025eko otsailaren 13ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/13/pdfs/BOE-A-2025-2685.pdf>

- 2/2025 Legea, otsailaren 6koa, Jokoari buruzko 15/1984 Legea eta 6/2014 Legea aldatzen dituenaz. Azken lege horren bidez, berriz,otsailaren 16ko 2/1989 Legea aldatu zen, jolasarako zentro turistikoari buruzkoa zena eta tributazio-, merkataritza- eta joko-arauak ezartzen zituena (2025eko otsailaren 17ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/17/pdfs/BOE-A-2025-2984.pdf>

- Dekretuko honetako akatsen zuzenketa: 11/2024 Lege Dekretua, abenduaren 17koa, Aurrekontua luzatuta daukaten sektore publikoaren finantza-beharrena, Kataluniako nahikotasun-errentaren adierazlea handitzearena eta gizarte-prestazioen arloko neurriena. (2025eko otsailaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/17/pdfs/BOE-A-2025-2985.pdf>

- 1/2025 Lege Dekretua, urtarrilaren 28koa, errentei eusteko premiazko neurriari buruzkoa. (2025eko martxoaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/14/pdfs/BOE-A-2025-5051.pdf>

Kantabriako Autonomia Erkidegoa

- **2/2024 Legea, abenduaren 23koa, Kantabriako Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (2025eko urtarrilaren 16ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/16/pdfs/BOE-A-2025-642.pdf>

- **3/2024 Legea, abenduaren 23koa, zerga- eta administrazio-neurriei buruzkoa (2025eko urtarrilaren 16ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/16/pdfs/BOE-A-2025-643.pdf>

Extremadurako Autonomia Erkidegoa

- **1/2025 Lege Dekretua, urtarrilaren 23koa, Zerga-arloko presako neurriena (2025eko martxoaren 15eko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/15/pdfs/BOE-A-2025-5113.pdf>

Galiziako Autonomia Erkidegoa

- **2/2024 Legea, azaroaren 7koa, Galiziako baliabide naturalak erabiltzen dituzten proiektuen onura sozialak eta ekonomikoak sustatzekoa (2025eko urtarrilaren 6ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/06/pdfs/BOE-A-2025-237.pdf>

- **3/2024 Legea, abenduaren 5koa, Galiziako kultura inklusibo eta irisgarriari buruzkoa (2025eko urtarrilaren 15eko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/15/pdfs/BOE-A-2025-590.pdf>

- **4/2024 Legea, abenduaren 27koa, Galiziako Autonomia Erkidegoaren 2025erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (2025eko otsailaren 6ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/06/pdfs/BOE-A-2025-2144.pdf>

- **5/2024 Legea, abenduaren 27koa, zerga- eta administrazio-neurriei buruzkoa (2025eko otsailaren 6ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/06/pdfs/BOE-A-2025-2145.pdf>

- **6/2024 Legea, abenduaren 27koa, Galiziako Estatistikari buruzkoa (2025eko otsailaren 6ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/02/06/pdfs/BOE-A-2025-2146.pdf>

Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa

- 7/2024 Legea, abenduaren 11koa, Balear Uharteetako administrazio publikoen administrazioa sinplifikatzeko eta arrazionalizatzeko presako neurriei buruzkoa (2025eko urtarrilaren 17ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/17/pdfs/BOE-A-2025-720.pdf>

- 5/2024 Lege Dekretua, abenduaren 13koa, Balear Uharteetako ordenamendu juridikoko zenbait arau aldatzen dituen honako arlo hauetan: naturaguneak, sustapena, nekazaritza, hezkuntza, enplegu publikoa, turismoa, hirigintza eta etxebizitza (2025eko urtarrilaren 17ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/17/pdfs/BOE-A-2025-721.pdf>

- 6/2024 Lege Dekretua, abenduaren 13koa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoan uholde-arriskua duten eremuetan pertsonak eta ondasunak babesteko presako neurriena (2025eko urtarrilaren 17ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/17/pdfs/BOE-A-2025-722.pdf>

Errioxako Autonomia Erkidegoa

- 5/2024 Legea, abenduaren 27koa, Errioxako Autonomia Erkidegoaren 2025erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (2025eko urtarrilaren 28ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/28/pdfs/BOE-A-2025-1479.pdf>

- 6/2024 Legea, abenduaren 27koa, 2025erako zerga- eta administrazio-neurriei buruzkoa (2025eko urtarrilaren 28ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/28/pdfs/BOE-A-2025-1480.pdf>

- 1/2025 Legea, otsailaren 28koa, etxebizitza batera iristeko presako neurriei buruzkoa (2025eko martxoaren 14ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/03/14/pdfs/BOE-A-2025-5052.pdf>

Valentziako Autonomia Erkidegoa

- 6/2024 Legea, abenduaren 5koa, administrazioa erraztekoa (2025eko urtarrilaren 1eko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/01/pdfs/BOE-A-2025-1.pdf>

- 8/2024 Legea, abenduaren 30ekoa, Valentziako Erkidegoko irisgarritasun unibertsalari buruzkoa (2025eko urtarrilaren 17ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/01/17/pdfs/BOE-A-2025-717.pdf>

JURISPRUDENTZIA

Auzitegi Goren

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 5571/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1757/2024 Epaia, 2024ko azaroaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau gogorarazten du: demagun aldizkari ofizialean administrazio-egintza bat argitaratu dela; gero, akats-zuzenketa etorri da; eta, gero, nor edo nork administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du. Errekurtsoa interpretatzeko epea noiz hasiko da zenbatzen akats-zuzenketa argitaratzen den egunetik aurrera? Bakar-bakarrik, zuzenketak asmo egikarituei lotuta doazen eskubideen edukiak ukitzen dituenen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a4a5db596bef697ca0a8778d75e36f0d/20241122>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 164/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 7koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak doktrina hau ezarri du: udalak baimena ematen baldin badu kalean terrazak jartzeko, eta ustiatzeko, han jaten eta edaten emanez, baimen horrek berekin dakar jabari publikoaren aprobetxamendu berezia, baina ez da ondarearen kostu bidezko eskualdaketarako zergaren peko egitate. Zergaren testuak, itxura batean, parekatu egiten ditu administrazio-emakidak – in re aliena benetako eskubidea dakartenak demanioarekiko- eta jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu berezirako baimenak – kasu honetan, terrazak –, baina ez da horrela ulertu behar, alegia, demanioaren aprobetxamendu berezi orok ez dakar, berez, ondare-desplazamendurik baimendunaren alde, aztertzen ari garen zerga ordainarazteko denaz bezainbatean. Hala balitz, ez luke zentzurik izango zerga-egitatea osatzen duten eskualdaketen artean ez egoteak. Eta gaineratzen du, nolanahi ere, ondare-desplazamendu hori benetan gertatu dela erakutsi egin behar dela, bete beharreko baldintza baita, eta, horrek, baimenaren edukia eta inguruabarrak aztertu beharra dakarrela, ondorio fiskaletarako garrantzitsua baita, baina aztertutako kasuan ez da halakorik ezer jaso.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e928aa4c3b2f77c0a0a8778d75e36f0d/20250131>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 295/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 85/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: kontratazio publikoaren esparruan, dena delako kontratistak, Administrazioak eskatuta eta fede onez, kontratuaren iraupena amaitu ondoren eta inolako aldaketarik egin gabe, zerbitzua ematen jarraitzen badu, eta administrazio kontratatzaileak, berriz, zerbitzua protesta edo erreserbarik egin gabe jasotzen badu, kontratistari ezin izango dio kalte ekonomikorik eragin, zerbitzu horien jatorria kontratua dela jo beharko baita. Ondorioz, berandutze-interesen sortzapenari dagokionez, administrazioaren arloko kontratazio-araudia aplikatu behar da, eta, ez badago eztabaidarik fakturak benetan aurkeztu ote ziren, berandutze-interesen zenbaketa, Administrazioak ez badu printzipala ordaindu, erreklamazioa egin zenetik hogeita hamar egun igarotakoan hasten da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ea01c9f65a828ccfa0a8778d75e36f0d/20250206>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 475/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 79/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 27koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du jarritako kasazioa, eta deklaratu du enpresari dagokiola Administrazioak finkatutako funtsezko zerbitzuak zehatz-mehatz betetzea eta betearaztea, administrazio-ebazpenak ezartzen duenaren arabera, eta plantilla, horrenbestez, ebazpenean ezarritakoa betetzeko behar-beharrezkoa dena mugatu behar dela, eta enpresak dakiela plantillek zer egitura behar duten eduki gatazkari aurre egiteko. Gobernu-agintaritzak ez dirudi eskumen hori bere gain hartzeko moduan dagoenik. Ez badaki nork egingo duen greba, edo langileek zer kualifikazio duten edo zer nahiago duten -eta enpresak haiekin akordioa lortzen saiatu behar du beti-, ezin du zehaztu, hegaldien zer ehunekori zer plantilla dagokion erlazionatuz, ezarritako funtsezko zerbitzuak zer plantillek bete behar dituzten. Izan ere, administrazioa, antolakunde modura, erkidegoari zerbitzua emateko dago, Konstituzioak eta legeak zeregin bat agintzen diote, huraxe betetzeko dago, funtsezko zerbitzuak zehaztuz eta zuzen-zuzen betetzen direla zainduz, baina enpresa ordezkatzeko ez du nahitaez bere eginkizun, haren (enpresaren) lana baita -eta berezkoa gainera- plantilla kudeatzea. Hala ere, tartean diren gorabeherak samurrak direnean -kasu honetan ez dira samurrak-, eta greba-egunak zein diren ikusita, greba dela-eta turismoan gehien eragiten duten aireportuak zein diren, zer konpainia dauden nahasturik, eta hegaldi programatuak, irizpide orokorrik eman badaiteke plantillarako, eman daiteke, baina enpresaren antolamendu-funtzioa errespetatuz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5b8ea7dfc3bebe-bba0a8778d75e36f0d/20250214>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 294/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 78/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 27koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak hau deklaratu du: kontratazio publikoaren esparruan, dena delako kontratatistak, Administrazioak eskatuta eta fede onez, kontratuaren iraupena amaitu ondoren eta inolako aldaketarik egin gabe zerbitzua ematen jarraitzen badu, ezin izango dio kalte ekonomikorik eragin, administrazio kontratatzaileak zerbitzua protesta edo erreserbarik egin gabe jasotzen duenean, zerbitzu horien jatorria kontratua dela jo beharko baita. Ondorioz, berandutze-interesen sortzapenari dagokionez, administrazio-kontratazioa gobernatzen duen estatu-araudia aplikatu behar da, eta, ez badago eztabaidarik fakturak benetan aurkeztu ote ziren, berandutze-interesen zenbaketa erreklamazioa egin zenetik hogeita hamar egun igarotakoan hasten da, Administrazioak ez badu printzipala ordaindu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9e600e7cc1b2b5ffa0a8778d75e36f0d/20250206>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 293/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 102/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 30koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egin du doktrina hau: 182/2021 KAE eman zen egunean oraindik aurkaratu gabe zeuden HLBHZren behin-behineko edo behin betiko likidazioak (epai hartan deklaratu zen zerga horren zati bat Konstituzioaren aurkakoa zela) ezingo dira aurkaratu epai horretan egindako konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioan oinarrituta; era berean, ezingo da autolikidazioak zuzentzeko eskatu arrazoi horretan bertan oinarrituta, epai hori ematean eskaera hori egin gabe bazegoen. Konstituzio Auzitegiak esan nahi zuen epaia eman zen egunerako finkaturik zeuden egoerak ukiezinak direla, ez argitalpen-egunerako finkaturik zeudenak, hori nahi zuen loturik utzi. Erabaki hori berak bakarrik har dezake, bere ahalmen eta erantzukizunen barruan. Hala ere, posible izango da hura aurkaratzea edo zuzentzea, administrazio-errekurtsoetarako eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoetarako ezarritako epeen barruan, baina, betiere, konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioa ez den beste oinarri batzuei helduta, hala nola, balio-gehikuntzarik adierazten ez duten egoerak nahitaezko kargapean jarri izana, edo zerga-kuota konfiskatzeraino iristea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b903ed6c1dd24542a0a8778d75e36f0d/20250206>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 301/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 101/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezartzen duenez, HLBHZren behin-behineko edo behin betiko likidazioak ezin dira aurkaratu konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioan oinarrituta, Toki Ogasunei buruzko Legearen manu jakin batzuk Konstituzioaren aurkakoak zirela deklaratu zuen epaia eman zen egunean artean ez baziren aurkaratu eta irmo bihurtu badira, egoera finkatuak direlako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/238416cfa0468ac9a0a8778d75e36f0d/20250206>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 422/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 106/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egin du jurisprudentzia-doktrina hau: Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren araudiaren zati bar Konstituzioaren aurkakoak zela deklaratu zuen KAE eman zenean (Konstituzio Auzitegiaren Epaia), artean aurkaratu ez ziren zerga horren behin-behineko edo behin betiko likidazioak ezingo dira aurkaratu epai horretan egindako konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioan oinarrituta; era berean, ezingo da autolikidazioak zuzentzeko eskatu argumentu horretan oinarrituta, epai hori eman zenean eskaera hori oraindik egin gabe bazegoen. Hala ere, administrazio-errekurtsoetarako eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoetarako ezarritako epeen barruan, epaia emateaz batera irmo bihurtu ez ziren behin-behineko edo behin betiko likidazioak aurkaratu ahal izango dira, bai eta autolikidazioak zuzentzeko eskatu ere (horretarako ezarritako epearen barruan), epai horretako konstituzio-kontrakotasuneko adierazpenaz bestelako arrazoietan oinarriturik baldin bada. Adibidez, Konstituzio Auzitegiak aurretiaz deklaraturik dauka, epai batzuen bidez, HLBHZren zenbait arau konstituzioaren aurkakoak zirela, balioaren handitzerik ez zekarten egoerak salbuespenik gabe gehiago kargatzen zituztelako, edo zerga-kuota konfiskaziora iristen zelako; bada, epai horiek erabil daitezke aurkaratzea egiteko arrazoi gisa, Konstituzio-kontrakotasuneko adierazpena ez den beste edozein aurkaratze-arrazoi bezalaxe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3573840da39809bea0a8778d75e36f0d/20250213>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 419/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 89/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 29koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egin du jurisprudentzia-doktrina hau: aztertu dugunaren bezalako kasuetan, errekurtsogilea behar ez bezala baztertu bazuten hautaketa-prozesutik, ez da legezkoa hautaketa-prozesu hartarako erabakita zegoen gutxieneko nota erabiltzea; zergatik? Abian den sustapenean egin beharreko proba psikoteknikoak jatorrizko sustapenekoaren zailtasun eta ezaugarri, erantzun-denbora eta ariketa mota berdinak edo antzekoak izan behar dituen neurrian, konponbide egokia hau da: izangai guztiei, epaiaren indarrez parte hartu edo lehen aldiz parte hartu, proba zer deialditatik eratorri, deialdi horretan finkatutako gutxieneko nota aplikatzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e3287508a1774a50a0a8778d75e36f0d/20250213>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 300/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 83/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du kasazioa; izan ere, inguruabarrak kontuan hartuta, ezinezkoa da onarpen-autoak planteatzen dituen galderei buruzko jurisprudentzia eratzea, nahiz eta interes teoriko edo orokor nabarmena eduki; izan ere, galdera horiei erantzunda ere, tartean diren egitateak kontuan hartuta, ez litzateke baliokoa izango kasazio-errekurtsua ebazteko, galdera horiek ez daudelako loturik atzetik dagoen funtsezko gaiarekin. Bestela esanda, kasu honetan, kasazio-errekurtsuak ez du ondorio erabilgarriarik. Hala, epai horretan, gutxienez itxuraz, bada kontraesan bat, alegia, EAANK (gaztelaniaz, TEAC) ez zuen onartu erreklamazioa, ez zegoelako errekurritzeko moduko egintzarik, eta, alde batetik, epaiak irizpide hori berretsi egiten du, baina, bestetik, gai horren sakonera jotzen du, eta, nahiz eta ez egon errekurritzeko moduko egintzarik, eta formalki aipatu ez bada ere, bada zalantza ea ustezko egintzaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez ote daitekeen. Hori iradokitzen du Estatuko abokatuak kasazio-errekurtsuaren aurkako bere idazkian, baina, hala ere, ez du formalki esaten administrazioarekiko auzi-errekurtsua onartezina denik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4a53a62b16f23d30a0a8778d75e36f0d/20250206>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 334/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 70/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egin du jurisprudentzia-doktrina hau: Madrilgo Udaleko mugikortasun-agenteek jai-egun batzuetan lan egin beharra izaten dute -egun-kopurua aurretiaz dago zehazturik-. Jai-egun horien ordaina beren araudi berezian zehazturik dagoena da, alegia, kasu honetan, ez da aplikatuko Madrilgo Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen 2019-2022 aldirako hitzarmena, baizik eta mugikortasun-agenteek jaiegunetan noiz-nola lan egingo duten erabakitze araua, eta, arau horretan, konpentsazio espezifiko bat jasotzen da, hots, jai-egun gehigarriak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/82ab27343cbeb9cfa0a8778d75e36f0d/20250207>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 473/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 112/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: udalak baimena ematen baldin badu kalean terrazak jartzeko eta ustiatzeko han jaten eta edaten emanez, baimen horrek berekin dakar jabari publikoaren aprobetxamendu berezia, baina ez da ondarearen kostu bidezko eskualdaketarako zergaren peko egitate. Zergaren araudiak, itxura batean, parekatu egiten ditu administrazio-emakidak –"in re aliena" benetako eskubidea dakartenak demanioarekiko- eta jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu bereziko baimenak – kasu honetan, ostalaritzak kalean jartzen dituen terrazak-, baina ez da horrela ulertu behar, alegia, demanioaren aprobetxamendu berezi orok ez dakar, berez, ondare-desplazamendurik baimendunaren alde, aztertzen ari garen zerga ordainarazteko denaz bezainbatean. Nolanahi ere, jakin nahi baldin badugu jabari publikoaren aprobetxamendu bereziko baimena zergapetu behar ote den, ikusi behar da ea ondare-desplazamendurik gertatu den, eta, horretarako, baimen horretan zer jartzen duen eta zergatik eman den ere begiratu behar da, ondorio fiskaletarako garrantzitsua baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/138628c9771959aca0a8778d75e36f0d/20250214>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 555/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 114/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezarri duenez, lan-egutegia Administrazioak egiten du, LOEko bosgarren xedapen gehigarriak ematen dizkion antolamendu-ahalak baliatuz. Administrazio publikoen erabaki batzuk antolamendu-ahal horietatik tiraka hartzen dira baina funtzionario publikoen lan-baldintzetan eragina izaten dute; bada, horren arabera egongo da, edo ez, negoziatzeko beharra, hots, lan-baldintzetan benetan eragiten duten gorabeheran.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/be9d450abe1fdce5a0a8778d75e36f0d/20250220>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 552/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 122/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 6 koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du:

a) Oinarrian landa-lurzoru modura jotzen diren lursailak desjabetzeko orduan, balio justua finkatzeko, zenbat balio duten zehaztu behar da. Horretarako, errentak kapitalizatzeko metodoa erabili behar da, hala agintzen baita 7/2015 LLTBren 36.1.a) artikuluan eta LLBEren 7.1 artikuluan. Nolanahi ere, errentarik handiena aplikatu beharko da, izan potentziala, izan erreala, LLBEren 8. eta 9. artikuluetan jasotako definizioen arabera.

b) Oinarrian landa-lurzoru modura jotzen diren lursailen balorazioan, nahitaez errenta erreala aplikatu behar da, baldin eta errenta hori handiena bada eta lurzorua baloratzeko unean egindako jarduera bateragarria bada aplikatu beharreko hirigintza-araudiarekiko.

c) Landa-lurzoru modura jotzen diren lursailak desjabetzea denean kontua, hirigintza-arauekin bateragarria den base militar bat izatera bideratuta baldin badaude, desjabetuak baldin badira lursailen errentatzaileak eta Administrazio desjabetzailea baldin bada errentaria, 7/2015 LLTBren 36.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, lursail horiek errentamenduagatik jasotako errenta errealaren arabera baloratu behar dira, baldin eta desjabetzearen kausa – edo desjabetzea justifikatzen duen helburua –, hain zuzen ere, lursail horietan base militarra mantentzen dela bermatzea denean.»

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e02dc3a944f09820a0a8778d75e36f0d/20250220>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 641/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 141/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du jarritako kasazioa; izan ere, bitarteko funtzionario gisa emandako zerbitzu-urteei buruzko aipamen hutsa ez da nahikoa aurkaratutako epaiak deklaratzeko duen abusu-egoera automatikoki ondorioztatzeko. Deklarazio hori inguruabar zehatz eta espezifiko batzuetatik ondorioztatu behar da, eta, kasu honetan, eskatzen zuen aplikazitekeen bitartekoen zerrenda-sistema aztertzea, izendapenen ondorengotza-mota aztertzea eta zerbitzuak lantoki batean edo batzuetan eman ziren baloratzea. Gainera, azaldu beharra zegoen lanpostu hutsa zer motatakoa zen, irakasle-eginkizun guztiak berdinak izan ziren ala ez, eta, azken batean, horretarako deitutako hautaketa-prozesuetara aurkeztu ote zen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/96de9a3b2b8b7a4ea0a8778d75e36f0d/20250227>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 759/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 178/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du jarritako kasazioa; izan ere, ezin da aplikatu gradu pertsonal handiagoa lortzeko aurreikusita dagoen araubide juridikoa (28. maila eskatu du), zergatik eta, besterik gabe, esan duelako edo, kasu honetan bezala, arrazoitu duelako betetzen duen lanpostuan (bakarra, zerbitzu-burua, 26. maila) dauzkan funtzioak eta ardurak arlo-buruak (28. maila) betetzen dituen berdinak direla. Horretarako, urte batzuetan -legeak dio zenbatetan-, maila horretako lanpostu batean edo batzuetan jardun behar zuen, baina ez du horrelakorik egin. Alegia, 28ko lanpostu batean jardun beharra zeukan, horra nahi baitu iritsi.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e454c56dcf91c032a0a8778d75e36f0d/20250306>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 784/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 183/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak deklaratu duenez, arau orokor gisa, kontratuan aurreikusi gabeko obrarik egiten bada, baina horretarako aldaketarik onartu gabe kontratuan, administrazio-kontratuak erregulatzen dituen arauditik kanpo geratzen da dena delako obra hori. Horrek ez du esan nahi ezin denik aurkeztu ordainsariei eta berandutze-interesen balizko sortzapenari buruzko erreklamaziorik, baina, inor bidegabeki aberastu ez dadin -onartezina baita-, erreklamazio horiek ez dute babesik edo estaldurarik aurkitu behar kontratu publikoen legerian. Ordea, esku-hartzaileek berek -kontratistak eta Administrazioak- araudi hori saihestu eta urratu egin zuten. Izan ere, Administrazioak, obrak eta zerbitzuak burutu beharra eskatzen duten jarduketa guztietan, kontratu-araudia bete beharra dauka,

lizitatzailerik guztiek sarbide librea izan dezaten bermatzeko, prozeduren publizitate- eta gardentasun-printzipioak errespetatuz, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta gastu-kontrolaren helburuarekiko lotura bermatuz, eta ziurtatuz obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatatzeko funtsak eragimenez erabiliko direla.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5a4ae837046abb14a0a8778d75e36f0d/20250307>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 687/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 197/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 25ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak deklaratu duenez, aldi baterako izendapenak gehiegi erabili diren jakiteko, egiaztatu behar da behin eta berriz egin direla edo luzatu egin direla iraunkorrak edo egiturazkoak ez diren premiak betetzeko. Edonola ere, aldi baterako izendapen gehiegi egin zaizkion inor ezin da funtzionario finko edo pareko beste ezer egin; Konstituzioaren aurkakoa da. Legez zehazturik dago zer kasutan amaitu daitekeen aldi baterako zerbitzu-harremana, eta, gehiegikeria jasan duen langilea beste zerbaitengatik kargugabetzen badute, eskubidea izango du lanpostura itzultzeko harik eta lanpostu hori funtzionario publiko batek bete arte edo amortizatu arte; eta, aldi baterako izendapenak gehiegi egin bazaizkio eta egiaztatzen baldin badu horrek kalte egin diola, eskubidea du kaltearen neurriko ordaina eman dakion, edo legegariak erabakitzen duen ordaina.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fc78d2bf4f3185f8a0a8778d75e36f0d/20250306>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 724/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 194/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 25ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezartzen du bidezkoa dela epai irmo bat berrikustea, baldin eta, ezinbestez edo epaiak hobetsi zuen alderdiaren eraginez lehen agertu ez zen beste agiri erabakigarriarik inguratzen bada epaia eman ondoren; epaia emateko unean alderdietako batek ez bazekien epaiaren zentzua eragin zuten dokumentu batzuk faltsutzat aitortuta edo deklaratura zeudela, edo gerora aitortzen eta deklaritzen badira faltsu; epaia lekukoen frogaren bidez eman bada baina lekuko horiek, gero, epaiaren oinarri izan ziren deklarazioetan lekukotza faltsua emateagatik kondenatzen badira; edo epaia eman bada eroskeriaren, prebrikazioaren, indarkeriaren edo iruzurrezko beste azpikeria baten ondorioz. Baina kontua baldin bada defentsa-gabezia eragin dezakeen prozedura-arauren bat ustez urratu izana, hori ez da epaia berrikusteko arrazoia.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/88ced8cbc10f8eb5a0a8778d75e36f0d/20250306>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 753/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 192/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 25koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak erabaki duenez, non bis in idem printzipioaren prozedura-dimentsioa dela-eta, zergapekoa bat eta bera bada eta gertakariak ere berberak badira, lehenengo zehapen-prozedura piztu zuen zerga-likidazioa baliogabetu egin delako behintzat ezin da ez beste zehapen-prozedura bat abiarazi ez beste zehapen bat jarri.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/588cc6c57b64ca68a0a8778d75e36f0d/20250306>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 891/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 217/2025 Epaia, 2025eko martxoaren 3koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak jurisprudentzia-doktrina hau gogorarazten du: ariketak errepika daitezke, deialdiaren oinarriak urratzen ez badira, baina, bakar-bakarrik, eragindako izangaiatzat.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d8d616835bf900caa0a8778d75e36f0d/20250313>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 885/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 215/2025 Epaia, 2025eko martxoaren 3koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenean aurkeztu den errekurtsuan, auzi honek du kasazio-interes objektiboa jurisprudentzia eratzeko: «Zehaztea ea egokia den kontratazio-arloko errekurtsu berezia epez kanpokotzat jotzea, baldin eta, errekurtsu hori Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako erregistroetako batean aurkeztu bada (urriaren 1eko 39/2015 Legea, 16.4 artikulua), baina komunikazioa ez bada egin egun berean edo, nolanahi ere, aurkezteko aurreikusitako epearen barruan.

Komunikazio hori Sektore Publikoko Kontratuen Legean dator aginduta (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, 51.3 artikulua)».

Salak ondorioztatzen du 814/2015 Errege Dekretuak lege-mailako manu bat garatzeko balio zuela, eta dekretu horretako 18.1 artikuluan ezarritakoak manu hartan zuela babesa; baina, orain, erregelamendu-arau horrek ez duela balio, gerora beste lege-manu bat etorri delako, eta, gai zehatz honi buruz dakarren araua guztiz bestelakoa delako, legeek ziotenaz guztiz bestelakoa, aukera ematen baitu, gaia zabaletik eta berariaz jorratuz, errekurtsu berezia APELen 16.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan aurkezteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/598bf78857c05536a0a8778d75e36f0d/20250313>

Justizia-auzitegi nagusiak

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 19/2024 Epaia) EAEko JANen 56/2024 Epaia, 2025eko urtarrilaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Bizkaiko Foru Aldundiak 263/2022 Foru Dekretua onartu zuen. Dekretu horrek 150 administrari-lanpostutarako deia egiten zuen, eta, 133tan, euskarazko nahitaezko hizkuntza-eskakizuna eskatzen zuen. Herritar batek deialdi hori aurkaratu egin zuen, euskara ezagutzeko eskakizuna neurritz kanpoko eta diskriminatzailea zela argudiatuz, eta funtzio publikoan berdintasun-baldintzetan sartzeko eskubidea urratu egiten ziotela esanez.

Arrazoa ematen zaio herritarrari; izan ere, epaiak ondorioztatzen du euskararen ezagutzaren ehuneko handi bat eskatzea ez dagoela justifikatuta konbokatutako lanpostuen funtzioei erreparatuz gero, eta hori hizkuntzagatiko diskriminazioa da. Administrazioak apelazio-errekurtsoa jarri zuen baina epaiak ezetsi egiten du, eta deialdiaren deuseztasuna berretsi, ez baitator bat berdintasun- eta proportzionaltasun-printzipioekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/acf731020182132aa0a8778d75e36f0d/20250218>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Andaluziako JANen 17461/2024 Epaia) Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 838/2024 Epaia, 2025eko irailaren 25koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak hau ondorioztatu zuen: Bada, transkribatutako arau bakar batean ere ez da aurreikusten Kontu Hartzailetza Nagusiaren txostena nahitaezkoa eta aldez aurrekoa denik jendaurreko informazio-izapidean aurkeztutako erreklamazioetan, eta, beraz, ezta dagokion ordenantzaren aldaketa behin-behinean onartu ondoren ere. Kontuan izan behar da aldaketa-proposamena egin bitartean eskatu zela Kontu Hartzailetza Nagusiaren txostena, eta, hark egin zituela zegozkion proposamenak, eta ondoren etorri zela behin-behineko onarpena. Beraz, kasu honetan, kontua ez da ez dagoela Kontu Hartzailetza Nagusiaren txostenik; aitzitik, txostena egin aurreko prozesuan azaldu zituen azaldu beharreko gogoetak.

Beste kontu bat da ea aplikatu behar ote den 424/2017 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duena, gure ustea da ez dela aplikagarria.

Ordenantzak egiteko prozesuaren barruan, toki-erakundeek badute arauak egiteko ahala, baina aipatu ditugun manu horiek ez dute balio kasu horretarako, nahiz eta, kasu jakin batzuetan, eska daitekeen txosten ekonomikoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c41f3e389485c574a0a8778d75e36f0d/20250109>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Gaztela eta Leongo JANen 4239/2024 Epaia) Gaztela eta Leongo 195/2024 Epaia, 2024ko urriaren**

21ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Epaia azpimarratzen du badaudela epe batzuk ezarrita hirigintza-aprobetxamendua gauzatzeko eta administrazioak epe horien barruan jardun behar duela, eta, ez bada ezer egiten, horrek balio justuaren espedientea irekitzea ekar dezakeela, eta, horrela, desjabetzeek eragindako jabeen eskubideen babesa indartu egiten dela.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a5edac563e6363e2a0a8778d75e36f0d/20241119>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: MU JANen 2459/2024 Epaia) Murtziako JANen 585/2024 Epaia, 2024ko abenduaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Errua banaturik dagoela deklaratu zuen, alegia, % 75 udalari zegokiola, eta % 25 istripua izan zuenari. Izan ere, zerbitzu publikoa erabiltzeak berekin dakarren arriskua handiagoa baldin bada eska daitezkeen segurtasun-estandarrak baino, udalari dagokio herritarrei eragindako kalteen ondare-erantzukizuna, eta azpimarratzen du garrantzitsua dela estandar egoki horiei eustea istripuak prebenitzeko eta herritarrek babesteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e372ad7c55102f91a0a8778d75e36f0d/20250110>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: MU JAN 2494/2024 Epaia) Murtziako JANen 575/2024 Epaia, 2024ko abenduaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiaren ustez, kaltea gertatu baldin bada bide publikoan eta festa ospatzen den bitartean, horrek ez du esan nahi Administrazioak erantzukizuna saihestu dezakeenik zergatik-eta ekitaldia herrikoia delako edo erantzukizuna antolatzaileena omen delako. Festa herrikoietan, jendetza batzen dela-eta, arreta berezia jarri behar da, arriskuak saihesteko. Festa herrikoi horiek, udalek antolatuta edo babestuta baldin badaude, zerbitzu publikoen funtzionamenduaren esparruan sartzen dira, nahiz eta kudeaketa beste batzorde

edo are eta zerbitzu publiko batzuen esku egon eta, haiek, izaera juridiko indenpendientea eduki baina udal-antolakunderen barruan egon.

<https://www.poderjudicial.es/search/indexAN.jsp>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: AR JANen 30/2025 Epaia) Aragoiko JANen 21/2025 Epaia, 2025eko urtarrilaren 10ekoa. Gizarte-arloko Sala.

Hautaketa-prozesua gainditu, finko bihurtu, eta, hortaz, lan-harremana ez zitzaion iraungi, beraz, Salak ondorioztatu du ez dagokiola kalte-ordainik bat ere.

Langileak Aragoiko Diputazio Nagusiarentzat lan egin zuen 2009ko ekainetik, aldi baterako hainbat kontraturen bidez. Epai bidez, aitortu zioten langile finkoa ez, baina mugagabea zela, eta horrelaxe zegoen, 2024ko maiatzean enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesua gainditu zuenean. Orduna, finko egin zuten, lanpostu berean atxikita eta ordura arteko baldintza profesional berberetan.

Epaimahaiaren ustez, «urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaina dagokio baldin eta lan-harremman mugagabe ez-finkoa azkendu bazaio lanpostua beteta geratu delako; baina ez dagokio, ordea, hautaketa-prozesua gainditu eta finko bihurtu denari».

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2b05a2966eb8bf82a0a8778d75e36f0d/20250226>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: GAL JANen 551/2025 Epaia) Galiziako JANen 93/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 12koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Hautaketa-prozesua egin ondoren, dena delako lanpostua ez baldin badu bete prozesua gainditu duen hautagai bakar batek ere, ez da egokia lanpostu hori betetzen ari zen bitarteko funtzionarioa kargutik kentzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0aafafcf9a86ea21a0a8778d75e36f0d/20250303>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Galiziako JANen 961/2025 Epaia) Galiziako JANen 115/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin zuen apelazioa. Alegia, alkateak dekretu batzuk onartu zituen dedikazio eskusiboei eta partzialei buruz eta ordainsarien autoesleipenari buruz, eta epaiak dekretu horiek berretsi egin zituen. Izan ere, legez, korporazio berria eratzen denean, ez da derrigorrezkoa aurreko korporazioko Osoko Bilkurak onartuta zeukan antolaketa- eta ordainsari-araubidea aldatzea, eta, horregatik, aurkaratutako epaian hartu zen erabakia zuzenbidearen arabera kotzat jo behar da, hau da, ezin da ulertu dekretu horiek akatsdunak eta deusezak direnik, ez eskumenari dagokionez, ez eta onartzeko prozedurari dagokionez ere. Izan ere, Osoko Bilkurak 2019an onartu zuen erabakitik gauza bakar bat aldatzen da: alegia, udalbatzako kideak berriak zirenez, pertsonak aldatu ziren, hots, dedikazio eskusiboa eta partziala zeukaten zinegotziak beste batzuk ziren, baina izendapen hori alkatearen esku dago, halaxe baitago erabakita dedikazio eta ordainsariei buruz Osoko Bilkurak bere garaian onartu zuen araubidean (udal-aurrekontuko 25. exekuzio-oinarria aldatuz: “udalbatzako kideen ordainsariak”). Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak onartuta zituzten beren txostenak, eta Idazkaritza horrek esana zuen ez zela egokia txosten horiek bazterrean uztea, aurkaratutako dekretuetan ere bete behar zirela, eta, gainera, ez direla Udalbatzako organo kide anitzeko batean onartu beharreko egintzak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/79274f9bcd5b6d1da0a8778d75e36f0d/20250312>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: MU JANen 173/2025 Epaia) Murtziako JANen 66/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egin du jarritako apelazioa. Hots, behin-behineko erabilera-eskaera egin zuten diskoteka modura jarduteko, ezetz erantzun zitzaien, eta epaiak ezezko hori berretsi egin zuen, kokatuta dagoen lurzoruan berariaz debekatuta dagoelako erabilera hori, baita baimena behin-behinerako eskatzen bazen ere. Obrak lurzoru urbanizaezinean egin behar direnean, behin-behineko erabilerak salbuespenezko kasuetarako gorde behar dira. Behin-behinean erabiltzeko debeku hori ez da beharrezkoa UAPOn berariaz aurreikusita egotea, eta, nolanahi ere, erabilera hori antolamenduarekin bateragarria ote den zehaztu ahal izateko, hasieratik onetsi behar da, errekurritutako ebazpenak argi dioen bezala, eta hori ez da gertatzen gure kasuan. Azkenik, gogorarazi behar da ez dela arrazoitu beharrezkoa denik edo betiko ez denik, ezaugarri teknikoak azalduz edo titulartasun- edo ustiapen-araubidea behin-behinerako dela

erakutsiz. Lurzoru urbanizaezina da, ez dago aurreikusita bertan hirigintza-lanik egitea, eta, beraz, behin-behineko lizentzia behin betikoaren baliokidea izango litzateke, eta, bide horretatik, lurzoruaren sailkapenaren arabera debekatuta dagoen erabilera bat baimenduko litzateke.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/746ac3c6e5933476a0a8778d75e36f0d/20250312>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: AS JANen 266/2025 Epaia) Asturiasko JANen 132/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du apelazioa, eta berretsi du ez dela egokia kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzea, ez baita gertatzen «factum principis» kasurik; izan ere, kasu horietan, Auzitegi Gorenak beharrezkotzat jotzen du ezen dena delako neurria, aginduzkoa eta nahitaez bete beharrekoa izateaz gainera, administrazio emakida-emailearena izatea. Erreklamazioan esaten zenez, kiroldegia jarduerak behar egin zuen azkar batean, hau da, alarma-egoera amaitu ondoren, baina horrek ez du esan nahi situazio hori aurreikusi ezin den arrisku-egoera denik eta, aplikatu beharreko araudiaren arabera, kontratuaren ekonomia berrezarri behar denik; izan ere, Auzitegi Gorenak behin eta berriz esana du -jurisprudentzia oparoa da- ezen, emakida luzerako baldin bada, kasu honetan bezala (40 urte), ekonomiaren haustura ezin da lotu, soilik, hilabete gutxi batzuetan jarduera murriztu izanarekin, halakoetan, epe labur batean (emakida osoaren zati txiki batean) diru-sarrerak galduta ere, galera hori erraz berdindu baitaiteke etorkizunean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a994f31e184153cca0a8778d75e36f0d/20250312>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: GL JANen 528/2025 Epaia) Gaztela eta Leongo JANen 198/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egin du apelazioa, ez baita Zuzenbidearen araberakoa izan Osoko Bilkurak nola onartu duen hirugarren adinekoen egoitza kudeatzeko esleipena; izan ere, lizitazio-prozesua ireki zenean, oraindik ez zen irmoa, eta hori ez dator bat Zuzenbidearekin. Egoitzaren kudeaketa zer kontratistak eramango zuen hautatzeko epea ireki zen, baina oraindik ez zen amaitu kudeaketa-aldaketa egiteko erabakiaren espediente, eta kontratazio-arauak espediente horretan zetozen. Epe-irekiera hori egiteko oinarria behin-behineko erabakia zen, eta argi dago lege ezarritako prozedura aldatu egin zela, eta aplikatu beharreko araudia urratu egin zela.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0b6603deae807fa6a0a8778d75e36f0d/20250312>

TOKIKO MUNDUA EUROPAN

- Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpena — Kontratazio publikoak zer dezakeen gizarte-ekonomiako erakundeentzat (ekimen-irizpena).

Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen dokumentu honetan "dei egiten zaie estatu kideei eta gobernu-maila guztiei, gogoan izan dezaten badela Gomendio bat gizarte-ekonomiarako esparru-baldintzak garatzeari buruz, eta han datozen neurri eta ekintza guztiak aplikatu beharko lituzketela, hartara gizarte-ekonomiako erakundeei merkatura sartzen laguntzeko, adibidez, hautaketa-irizpide proportzionalak ezarriz edo kontratuak sortatan banatuz.

Era berean, «Batzordeari eskatzen dio ahalik eta lasterren abian jar dezala EB mailako ekintza-plan estrategikoa kontratazio publikorako, Kontseiluak berriki eskatu duen bezala; eta garatu dezala neurrien aplikazioaren jarraipen-sistema bat, neurriok eraginkorrakoak izan daitezen», eta eskatzen dio orobat EBko botere adjudikatzailerik hobeto erabil ditzatela merkatuaren aurretiazko kontsultak eta kontratu erreserbatuak.

https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:C_202500100


- Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpena — Legegintza-proposamen baterantz egiteko, EBn bidezko trantsizioa egin dezagun eta Europako Itun Berdea sozialagoa izateko tresna politikoak izan ditzagun (ekimen-irizpena).

Dokumentu horretan, Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, besteak beste, planteatzen du Europako funtsak esparru estrategiko baten bidez koordinatu behar direla, denen helburuak lotuz eta estatu kideei aukera guztiak ondo ulertzen lagunduz. Gainera, badira politika batzuk nahi dutenak finantzaketa handitu trantsizioa bidezkoa izan dadin, eta, politika horien norabidea kontuan hartuta, Bidezko Trantsiziorako Funtsa eta Klimarako Gizarte Funtsa handiagotu ahal izango liriteke. Kontratazio publikoan, gainera, Estatu kideek saiatu behar dute jardunbide sozialki arduratsuak balia daitezen – baita adjudikazio-irizpide sozialak erabiliz ere, aukera gehiago sortzearen trantsizio ekologikoa gehien nozitzen dutenentzat–, eta adjudikazio-irizpide ekologikoak bultzatu behar dituzte.

https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=OJ:C_202500772

ARGITALPENAK

- Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko
Euskal Aldizkaria. IVAP. 2024ko abendua.



Informazio gehiago: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvvp.27.2024>

- Gestión y Análisis de Políticas Públicas. Nueva época. 36. zk.
(2024ko azaroa. INAP)




Informazio gehiago: <https://doi.org/10.24965/gapp.36.2024>



- Documentación Administrativa. Nueva Época. 13. zk.
(2024ko abendua)

Informazio gehiago: <https://doi.org/10.24965/da.13.2024>



- Cuadernos de Derecho Local, 67. zk. Derecho de aguas y Gobiernos locales. 2025EKO OTSAILA

Informazio gehiago: <https://gobiernolocal.org/cuadernos-de-derecho-local-no-67/>

DEIALDI INTERESGARRIAK



- **ANEXPAL.** Toki Administrazioiko Pertsonen Kudeaketako Arduradunen eta Adituen Elkartea Nazionalak (ANEXPAL) adierazi du badatorrela Toki Administrazioiko Pertsonen Kudeaketari buruzko III. Kongresu Nazionala. Iragarri du izena emateko epea irekiko dela eta programa argitaratuko dela. Kongresu hori Gasteizen egingo da, 2025eko maiatzaren 14tik 16ra.

Informazio gehiago: <https://anexpal.com/2025/02/abiertas-inscripciones-y-publicado-el-programa-del-iii-congreso-anexpal/>



- «Convocatoria de los Premios AUDAZ a la Transparencia Local». Antolatzailea: Gobernu Irekiaren Sare Akademikoa – Espainia

Informazio gehiago: <https://ragaesp.org/distinciones-audaz-transparencia-local>

- **Eco talks mintegi berria. EBko Zuzenbidearen muga berriak: Erregelamendua**

1115/2023. Datorren asteartean, apirilak 9, goizeko 11etan, Eco talks Mintegi Berria egingo da. EBko Zuzenbidearen muga berriak: 1115/2023 Erregelamendua.



Informazio gehiago: [https://www.obcp.es/sites/default/files/2024-04/ECO-TALKS 9 abril español\(1\) _compressed_0.pdf](https://www.obcp.es/sites/default/files/2024-04/ECO-TALKS 9 abril español(1) _compressed_0.pdf)

- **Mintegia: Europar Batasuneko Konstituzioa eta Gobernantza Ekonomikoa (UIMP).**

Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitateak udako mintegi/ikastaro hau eskainiko du uztailaren 15etik 19ra: Europar Batasuneko Konstituzioa eta Gobernantza Ekonomikoa (UIMP). Ikastaroa Europar Batasunaren norabide sozioekonomikoari buruzko eztabaidan txertatzen da, eta Espainiako Konstituzio ekonomikoaren azterketa hobeto osatu nahi du, kontuan hartu gabeko gaia baita

Espainia Europar Batasunera atxiki zenetik, neurri handi batean Europar Batasuneko Konstituzio ekonomikoak europartu egin duelako, bai eta zehatzago lotu eta egokitu ere.



Informazio gehiago: https://www.uimp.es/agenda-link.html? id_actividad = 65RG & anyaca = 2024-25